

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ZUIAKO UDALA****Behin betiko onartzea 2017ko aurrekontua eta plantilla**

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2017ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka. Beraz, Toki erakundeen aurrekontuei buruzko Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aurrekontu hori behin betiko onartu da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

Aldi berean, eta 7/1985 Legearen 90. artikuluan, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta 6/1989 Legearen, euskal funtzio publikoarenaren, 16. eta 20. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, osorik argitaratzen da udal honek onartutako langileen plantilla.

AURREKONTUA

DIRU SARRERAK	EUROAK
1. Zuzeneko zergak	1.022.284,93
2. Zeharkako zergak	50.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	371.943,25
4. Transferentzia arruntak	1.325.935,59
5. Ondare sarrerak	413.434,67
6. Inbertsio errealak besterentzea	140.000,00
7. Kapital transferentziak	1.663.009,95
9. Finantza pasiboak	539.092,65
TOTAL	5.525.701,04

GASTUAK	EUROAK
1. Langile gastuak	496.270,08
2. Ondasun arruntak erostea eta zerbitzuak	1.521.946,47
4. Transferentzia arruntak	507.095,22
6. Inbertsio errealak	2.746.389,27
7. Kapital transferentziak	254.000,00
TOTAL	5.525.701,04

AURREKONTU PLANTILLA

ZUIAKO UDALEKO LANGILE-ZERRENDA			
FUNTZIONARIOAK			
PLAZAK	ZK.	TALDEA	OHARRAK
1. GAIKUNTZA NAZIONALA			
1.1. Idazkaritza-kontuhartzaitza			
1.1.1. Idazkari-kontuhartzailea	1	A1/A2	B
1.1.2. Diruzaina / Administrari-kudeatzailea	1	A1/A2	H eta *
2. ADMINISTRAZIO OROKORRA			
2.1. Administrazioa			
2.1.1. Udal bulegoetako langileak BUE	1	C1/C2	B
2.1.2. Udal bulegoetako langileak - kontabilitatea	1	C1/C2	B
2.2. Laguntzailea			
2.2.1. Jendaurreko udal bulegoetako langileak	1	C2	HBB
3. ADMINISTRAZIO BEREZIA			
3.1. Zerbitzu bereziak			
3.1.1. Ofizio-langileak			
3.1.1.1. Hainbat zerbitzutarako langileak	2	C2	HBB
Funtzionario plazak, guztira: 7			
LAN-KONTRATUDUN LANGILEAK			
PLAZAK	ZK.	OHARRAK	
1. Lan-kontratu mugagabedun langileak (ezabatzekoak)			
1.1. Musika-hizkuntza eta piano irakasleak	2	Ezabatzekoa	
1.2. Txistu irakaslea	1	Ezabatzekoa	
Lan-kontratudun plazak, guztira: 3			

B: Plaza beteta

H: Plaza hutsik

HBB: Plaza hutsik, baina bitarteko kontratuarekin beteta

* Eusko Jaurlaritzaren onarpenaren zain

UDALBATZAKO KIDEEN ORDAINSARIAK ETA DIRU ESLEIPENAK:

– Alkate-lehendakaria: lanaldi partziala, ehuneko 73koa, eta urteko ordainsaria 33.426,96 euro (2015eko uztailearen 9ko udalbatza).

– Kalte-ordainak zinegotziei: osoko bilkuretara joateagatik: 50 euro; kide anitzeko organoetara, batzordeetara eta bileretara joateagatik edo beraien karguak betetzeagatik egin beharreko jarduerengatik: 41,86 euro (hiru ordu edo hortik behera) eta 66,54 euro (hiru ordutik gora).

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalari, aipatutako erabakiaren aurka. Horretarako, hilabete izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgia, 2017ko apirilaren 27a

Alkate-lehendakaria

UNAI GUTIERREZ URKIZA